

Punus avium

Itxura orokorra

Zuhaitz garai eta liraina da, eta 30 metroko altuera izatera iritsi daiteke; hala ere, landatutako aleetan ez zaio hainbeste hazten uzten gereziak errazago biltzeko. Bere azala leuna eta grisa da ale gazteetan, eta denborarekin belztuz doa.



Hostoak

Hostoak erorkorrak dira, sinpleak, txandakatuak, zerratuak, puntan bukatuak. Udazkenean, kolore berdetasunetik okrea, laranja eta gorria aldatzen dira.



Loreak

Loreak zuriak dira, taldeetan jaiotzen dira pedunkulu luzeetatik zintzilik. Bost petalo eta estamine ugari dituzte.



Fruituak

Fruituak gereziak dira, hezur bakarra dute barruan, eta heltzean distiratsuak eta leunak dira, gorri, hori edo ia beltz kolorekoak. Oso errabillu luzea duten bikote zintzilikarietan agertzen dira.

